

Post jakintza (?)

B

ai, Ur, gustatu zait yurta-ren sinbolismoa, baita garenari buruz dizkiozunak ere. Bai, gu ere ez gara inozenteak, eta esanak esan, paso egiten dugu inperiotik ez datorkigunaz, edo zuhurrago esanez, horretara paratuta bakarrik ihes egiten diogu inperioaren oldarrari, aisian, abarotan inperioak eramaten gaitu. Azken bolada honetan nire burua ernegatzen didan zera bat badut: denbora. Garaikidegia naizela, alegia. Nire lur eta denborari lotuegia nagoela esan nahi dut eta bestelakoa izatea gustatuko litzaidakeelako nahia-edo darabilt buruan, ardura gehiegirik gabe, egia esateko, berrogeiak beterik baitituz eta aspaldi onartuta dut nolakoa naizen.

Nik ere, Ur, postmodernitatearen beste irudi bat ikusi dut egun hauetan, edo hala interpretatu dut. Zurea baino gaiztoagoa da, halere. Bada Israelen Tsafat deitzen den herri bat non Isaak de Luriaren itzalera bildu baitira judutar deboto pila bat. Isaak de Luriak Errege Katolikoak atzerriratutako ama zuen rabinoa izan zen, mistika judutarraren sortzailea eta ondorengo judutartasunean eragin handia izan duena.

Egun hauetan herri horretan gabiltza, *hasidimez* inguraturik. Badakizue kiribil bana belarritatik behera, traje eta sonbreiru beltza, alkandora zuria, errezo oihalaren txintxilarioak agerian gerri parean, bizar luzeak askok, izugarritzko musika ozena darion furgoneta bat dago plaza parean, etengabe ailegatu eta alde egiten duten turisten autobusez inguraturik.

Iragan garenean erreparatu diogu bi *hasidim* gazte direla barnean daudenak, buruak (eta kiribilak) mugituz dantza eta dantza. Furgonetao letra hebraitarren artean rabino baten argazkia dago, besoak jasota munduari oihuka ari bailitza. Gure gidari arabiarrari galdetu diogu zer dioen kantak eta nor diren bertan erdi dantzan ari diren bi mutilak: “Rabino horren jarraitzaileak dira eta kantak Lur Saindua haientzat dela dio” esan digu gidariak.



Juanjo Olasagarre

Apalategi

Bastervetxea

Gero jakin dut Luriaren mistikaren altzora herri mistikoa izan dela Tsafat hau Berpizkundetik hona. Eta milaka izan direla inguratu diren judutar fededunak, Israel sortu denetik gainera gobernuak pagatzen omen die bizimodua. Torah-a aztertu, eta noizean behin kafea hartzera plaza txukunera biltzean datzana.

Horretan, nongoak garen galdetu digu *hasidim* amerikarrak.

Bera Brooklyngo judutarra izanik, gurasoek federik erakutsi ez ziotenez fedearen bila etorri omen da hona. Esaten didan guztiari *new age* kutsua hartu diot: fedea salbatu duela, Biblian dena dagoela, espiritualtasuna, mundua ona dela, *The Holy Land*, denok garela anaia-arrebak. Enyaren kanta bat ematen du denak.

Ni rabinoa banintz eta mutil amerikarrak benetako mistikoa izan nahiko balu oso argi daukat zer eskatuko niokeen: zoaz lehendabizi bost urtez Afrikara, txiroak laguntzera, sartu gero etxe horretan eta irakurri ahal dituzun liburu guztiak (hizkuntza guztietako literatura gomendatuko nioke) hartu ondoren Biblia eta bota beste bost aztertzen. Orain prest zaude mistika judutarrarekin hasteko (esan beharrik ez dago, ez dut ideiarik ere mistika judutarrak). Horretan beste hamabost urte emanen ditugu. Orain prest zaude mistikoa izateko.

Paulo Coelho gehiegi dabilenez munduan, uste izaten dugu mistika eta filosofia pitin batekin, istorioak kontatzeko xamurtasun amini batekin nahikoa dela munduari buruzko ezagutza osoa eta betea jasotzeko. Ez da egia. Ezagutza oso bide labaina da, mutil amerikarrak jakin beharko luke, edo bestela norbaitek adierazi.

Uste hori da postmodernitateak ekarri diguna, ezagutza *lighta*, alegia. Baina jakintsua izatea oso gauza serioa da, lan asko egin behar da, sufritu egin behar da. Niestzchek, hala ere, Sokratesen filosofiari buruz ari zela bestela uste zuen: gure betebeharra ez dela jakintza baizik eta bizitza. Eta horrek ere lana eskatzen du, izugarria. ■

Paulo Coelho gehiegi dabilenez munduan, uste izaten dugu mistika eta filosofia pitin batekin, istorioak kontatzeko xamurtasun amini batekin nahikoa dela munduari buruzko ezagutza osoa jasotzeko